

## 4.- LUR-BURUAK

Lur-buru edo “polo” biak dira bizi izateko tokirik txarrenak, alde batetik otz aundia dagoalako eta bestetik gaua naiz eguna sei illebetekoa izatera eldu leitekela.

Ipar-buruan dago lurrik geien: Groelandia, Islandia eta Alaska. Lurralde onei seigarren lurartea edo “kontinente” deritze eta 24 Frantze’ren besteko zabalearea dauke. Ego-buruan ez da inor bizi.

**Islandia** bere buruaren jabe da eta su-mendiz beterik dago.

Ango iturriak ur beroa emoten dabe eta ba-dagoz urte guztian uger egiteko aukerea emoten daben ur epelezko zingirak be.

Barazkiak urte guztian emoten dauz lurrak, “geiser” edo iturri jaurtikari beroen ondoan.

**Groelandia** Dinamarka’ren menpean izan da, naizta Dinamarka bera baiño 50 bidar aundiagoa izan.

Ogei milla biztanle baiño ez daukaz. Oneik geienak begi-zear eta ule-baltz eskimalak dira.

Alderik geienak izotz edo leipean dagoz, baiña udan 20.ºraiño be eldu leiteke otzo-beroa eta orduan aitzak agertzen dira. Inguruetan lore batzuk be bai.

Baiña laster etorten da barriro negua eta itxasoa izotzu eta luraren gainean edurra ikusten da.

Udan gaurik ez dago baiña neguko iru illebeteetan egunik be ez.

Gau luze oneitan noizean bein “aurora boreal” edo ipar-buruko argiak agertzen dira zeru-isan.


**Alaska** Laterri Batuen menpean egon da.

Otzari geiago egiteko biztanleak itxas-otsoen eta artzurien narruak jazten dabez eta iztarretaraiño oñeta-koak.

Neguan narruz estaldutako arrizko etxeetan bizi dira eta bidez doazenean bizi izateko edurpean egiten dabez aterpeak.

Bidez joateko trineoak daukez, txakurrak eroale dirala. Laguntzaille ona dabe itxas-otsoen koipea, kruzeluak iziotu al izateko edo beroa ta janariak lortzeko.

Biziera gogorra da munduaren alde oneitan daukena!



## 5.- ASIA’KO SIBERIA

Europa’ren mugda diran Ural-Mendiak erdi bi egiten dabe Siberia zabala, sartaldera europarra dan Siberia eta sortaldera asiarra dana. Dana dala, Asia’ko Siberia’k ez dauko Europa’koaren antzik. Gaur begiratu dagigun azkenengo alderdi au eta bertoko biziera aztertu.

Amabi milloei m2 dira eta luraren ipar-bururaino sartzen da. Andik beerantza baso aundi, illun eta isillak dagoz, lenengo tundra izoztua eta gero taiga zugatz sendoz betea. Tundra’n ez dago txoririk, ez zomorririk. Taiga’n asiko gara piztiak ikusten.

Berantza gatozela, urrengo, landa zabalak eta emonkorak aurkituko doguz eta jakiña da azkenengo lurralde onetan aurrerapena lortu dauana Transiberiano deritxon trena dala.

1900n. urtean egin zan trenbide au. Egitasmoa ikaragarria zan: 9.000 km’ko trenbidea Europa’ko Errusia’n asita Vladistok’eko geltokira, basamorturik basamortu.

Trenbide oneri eskerrak bizi da jentea inguru areitan, lurra goldatu edo laiatu ondoren eta luraren azpia oso aberatsa aurkituta.

Egoaldean dago Turkistan, berez basamortu menditsua, baiña alde batzutara ura eroan dabe eta ezetasuna lortu da, maatsa, algodoia ta igaliak lortzeko. Inguruetan nekazari-erriak agiri dira.

Asia’ko Siberia onetan 150 enda ezbaridnetako giza-kiak bizi dira, meta-itxurako etxeetan: lakutoak eiztariak dira eta edur-auntzak eizaten dabez, samoiak erdi-aldean bizi dira eta onein etxeak enborrakaz ta ziriakaz egiten dabez, egoaldeko mongoliarak artegiak daukez eta Turkistan’eko turkomanak gelditu bagerik ara ta ona dabiltz, oituraz “nomadak” diralak eta eurakaz eroaten dabez abereak. Jantzi be politico jazten dira artule edo laneagaz.

Lurralde au “tzar”en aldian bakartadea zan baiña gaur olagintza edo industria onartu dabe eta asko aurreratu dira.

**Olazar’tar Martin’ek**

